

ATZERA BEGIRATU EZINIK

Ni Koldo naiz eta oraintxe bertan Namibian nago; Afrikako hego-mendebaldean zehazki. Egoera hau da: gepardo bat doa nire atzetik, oso azkar doa, eta, harrapatzen banau, jan egingo nau!

50 metro; korrika egiten ari naiz, inoiz baino azkarrago, zer gertatuko ote den pentsatzen. 25 metro; nekatzen hasi naiz, baina ezin naiz gelditu; bestela, akabo nire bizitza. 10 metro; asko ari da gerturatzen, eta egoera honek ez du itxura onik. 5 metro; oso gertu dago, zuhaitzak begiratzen ditut, horietara igotzea pentsatu dut, baina oso gertu dago nire harrapakaria. 3 metro; egoera iluntzen ari da niretzat; gepardota eta ni bereizten gintuen distantzia asko murriztu da. 2 metro; haren pausoak entzun ahal ditut, baita orroa ere. Metro bat; nire gorputzak ezin du gehiago; korrika egiteari uztea erabaki dut, eta neure burua lurrera bota dut bolatxo bat bezala kuzkurtuta. Hamarnaka buelta eman ditut lurrian, eta bat-batean...

Beno, hasieratik hasiko naiz. Hasteko, ni Koldo Iturmendi naiz; baita nire aita, aitona eta birraitona ere, eta uste dut nire herenaitona ere hala deitzen zela. Nire ama, aldiz, Mirari deitzen da. Bestalde, hiru anai-arreba ditut: Unai da anaia zaharrena, hamasei urte dauzka, eta berarekin daukat harremanik hoberena. Ni naiz hurrengoa. Ondoren, Mirari dator, hamaika urte ditu eta anai-arreben arteko neska bakarra da. Bukatzeko, anaia txikiena, Iker, sei urte ditu eta munduan existitzen den anaiarik maitagarrienetakoa da. Guztira, sei pertsona familia bakar batean.

Guzti hori esanda, momentu honetaea nola ailegatu naizen azalduko dut; hau da, gepardoarengandik ihes egiten ari naizen momentura.

Lehenik eta behin, bost egun atzera egin behar dugu. 2025eko ekainak 28 zituen, arratsaldeko bostak laurden-gutxi ziren zehazki. Ikasturtea bukatua zen jada, eta lau anai-arrebak sei metro luze den sofan eserita geuden, etxean. Oihan eta biok Play Station 5eko *FC 26* bideojokoan jokatzen ari ginen. Aldiz, Mirari eta Iker *Candy Crush* eta *Clash Royale* bideojokoetan ari ziren. Bestalde, gurasoak jangelako mahaian zeuden eserita; aurrez aurre, zerbait garrantzitsua prestatzen ariko balira bezala, pentsakor. Hobeto begiratu nuen; amaren mugikorra mahaiaren erdian zegoen, Booking aplikazioa piztuta. Pentsakor geratu nintzen momentu batez, partidari kasurik egin gabe. “Nonbaitera joango gara?”, pentsatu nuen. “Baina nora? Hain laster? Udako oporrak hasi besterik ez dira egin.” Hamar minuturen buruan, gurasoak egongelan sartu ziren, eta hitz egiten hasi ziren; hobeto esanda, berri on bat ematen hasi ziren:

—Berri bat ematera gatoz —esan zuen aitak. Hiru segundotan, denok isilik geratzea lortu zuen—. Dena gainditu duzuenek, zuen amak eta biok Namibiara hilabete erdi batez joatea erabaki dugu, Afrikan dagoen herrialde batetara. —Denok harrituta geratu ginen—. Guztiok joango gara, —jarraitu zuen—, bihar aterako gara aireportutik eta zuen bizitzetako oporrik onenak izango direla zin egiten dizuet.

Hori entzunda, lau anai-arrebak korrika atera ginen egongelatik bakoitza bere logelara, maleta prestatzeko.

Hurrengo egunean, aireportutik abiatu ginen eta dena ongi atera zen. Namibiara iritsitakoan, ziztu bizian joan ginen hotelera maletak uztera, eta lo egiteko prest, gaueko hamabi eta erdiak ziren eta. Lau egun ibili gara hara eta hona turista gisa, eta lagun berri bat egin dut; elefante bat da, Tantor deitzen da eta oso ongi pasatu dut berarekin. Haren gainean ibili naiz, janaria eman diot, eta, gainera, asko jolastu dut berarekin.

Bosgarren egunean, Spitzkoppe-ra etorri gara turismo-gidari batekin, safari kotxe batean. Hemen, Tantor ikusi dugu. Bestalde, zebrak, antilopeak eta hirakoideoak ikusi ditugu. Ustekabean, gepardo bat agertu da gure atzetik, ehun metrotara. Une horretan, gidariak azeleragailua zapaldu du, eta, inertziarengatik, txiri-buelta bat egin dut atzeraka eta kotxetik lurrera erori naiz. Zutitu naiz eta atzera begiratu dut; hortxe gepardoa. Aurrera begiratu dut; kotxearen arrastorik ez. Bakarrik utzi naute.

50 metro; korrika egiten ari naiz, inoiz baino azkarrago, zer gertatuko ote den pentsatzen. 25 metro; nekatzen hasi naiz, baina ezin naiz gelditu; bestela, akabo nire bizitza. 10 metro; asko ari da gerturatzen, eta egoera honek ez du itxura onik. 5 metro; oso gertu dago, zuhaitzak begiratzen ditut, horietara igotzea pentsatu dut, baina oso gertu dago nire harrapakaria. 3 metro; egoera iluntzen ari da niretzat; gepardota eta ni bereizten gintuen distantzia asko murriztu da. 2 metro; haren pausoak entzun ahal ditut, baita orroa ere. Metro bat; nire gorputzak ezin du gehiago; korrika egiteari uztea erabaki dut, eta neure burua lurrera bota dut bolatxo bat bezala kuzkurtuta. Hamarnaka buelta eman ditut lurrean, eta bat-batean... Danba!

Atzera begiratu dut, gepardoa hilda dago. “Baina... zer gertatu ote da?”, pentsatu dut. Beste aldera begiratu dut: hortxe dago; bizitza salbatu didana, oraintxe bertan nire lagunik onena, Tantor, munduko elefanterik zoragarriena. Tronparekin hartu nau, eta bere gainean eraman nau paseo bat ematera. Hamar minutu pasatu ondoren, kotxe bat ikusi dut: haiek dira; aita, ama, hiru anai-arrebak eta gidaria. Nire bila etorri dira, harrituta geratu dira ni bizirik naizela eta Tantorren gainean noala ikustean. Barkamena eskatzera etorri dira ia negarrez, baina ez diet hitz egiteko denborarik eman, esan diet Afrikan geratzen zaizkigun egunetan kontatuko diedala zer gertatu den.